*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Murgian, bi mila eta hamabosteko irailaren hamarrean, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.-

En Murgia a diez de septiembre de dos mil quince, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.-

**ALKATEA**
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA JN. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)
JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DON MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)
DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**CONCEJAL QUE NO ASISTE**
DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- UZTAILAREN 9KO EZOHIKO BILKUREN AKTAK IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

**1.- LECTURA Y APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES EXTRAORDINARIAS DEL 9 DE JULIO.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*🖂 azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Uztailaren 9an 19:00etan eta 19:45ean egindako ezohiko Bilkuren aktak irakurri eta ondorengo zuzenketak egin dira:

19:00etako aktan:

- Alonso zinegotzi jaunak esan du akats bat dagoela 8.- Kide anitzeko organoetarako (Haurreskolak Partzuergoa) udal-ordezkariak izendatzea izeneko puntuan, EHBildu taldeak, ZBG/ZNU taldeak Murgiako BHIko ordezkariaren aukeratzearen inguruan egindako proposamena onartu zuelako, hau da, Partzuergo horretako ordezkari titular gisa EAJ/PNVko pertsona bat eta ordezko bezala ZBG/ZNUko bat izendatzearena, eta Udalbatzak aho batez onartu zuela Udalaren ordezkari titularra eta ordezkoa Haurreskolak Partzuergoan ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA eta SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE andreak izango zirela, hurrenez hurren.

- Sautu zinegotzi jaunak esan du 6.- Informazio Batzordeak sortu eta eratzea izeneko puntuaren amaieran Alonso zinegotzi jaunak azaldutakoa zehaztu behar dela, hau da, Kontzejuen eta Euskararen Batzordeak ez direla batzordeak, lantaldeak baizik.

19:45eko aktan:

- Alonso zinegotzi jaunak esan du 10.- Galderak eta Eskaerak izeneko puntuan, autobusen markesinaren kokalekua aldatzea komeni zela esan zuenean, Elizaren aurreko zeharkako aparkalekuen eremua aipatu zuela, haren arriskugarritasuna kontuan izanda.

Udalbatzak aktak azaldutako zuzenketekin onartzea erabaki du aho batez.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

Vistas las actas de las Sesiones extraordinarias celebradas el día 9 de Julio de las 19:00 horas y 19:45 horas, se realizan las siguientes correcciones:

Acta de las 19.00 horas:

- El Concejal Sr. Alonso comenta que existe un error en el punto 8.- Nombramiento de representantes del Ayuntamiento en órganos colegiados, Consorcio Haurreskolak, porque el Grupo EHBildu, aceptó la propuesta realizada por el Grupo ZBG/ZNU con motivo de la elección de la representación en el IES de Murgia, de nombrar como representante titular en el citado Consorcio a una persona del EAJ/PNV y suplente de ZBG/ZNU, acordando la Corporación por unanimidad nombrar como representantes titular y suplente del Ayuntamiento en el Consorcio Haurreskolak a Dª ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA y Dª SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE respectivamente.

- El Concejal Sr. Sautu dice que en el punto 6.- Creación y composición de Comisiones informativas, se matice al final lo expuesto por el Concejal Sr. Alonso de que las Comisiones de Concejos y Euskera no son tales, sino grupos de trabajo.

Acta de las 19.45 horas:

- El Concejal Sr. Alonso dice que en el punto 10.- Ruegos y Preguntas, cuando comentó la conveniencia de modificar la ubicación de la marquesina de autobuses concretó a la zona de aparcamientos en batería frente a la Iglesia, teniendo en cuenta la peligrosidad de este último.

La Corporación por unanimidad acuerda aprobar las actas con las correcciones expuestas.

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Alkatetzak eta alkateordeak 15.07.02ko 211. zk.ko dekretutik 15.09.01eko 314.era arte eman dituzten xedapenen berri eman da eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: OAMIParen ordutegi luzatuko Zerbitzuaren eta Musika Eskolaren ekaineko Tasen Errolda onartzea (1.190,34 € eta 2.315,80 €, hurrenez hurren). Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren errolda zuzentzea, apirileko eta ekaineko behin betiko bajengatik. Alkateordeak izendatzea. Fruta- eta barazki-postua jartzeko baimena ukatzea, ez duelako inguruko produktuak izatearen baldintza betetzean. Isidoro Beraza jaunarekin hainbat musika-tresna jotzen irakasteko kontratua urtebetez luzatzea. Turismo Bulegoa hartuko duen udal-kioskoa handitu eta egokitzeko lanak PAVIAL NORTE SL enpresari 60.778,77 €tan (BEZ barne) esleitzea. Kontagailuaren eta bere etxebizitzaren arteko tartean dagoen ihes batengatik egotzitako 2.936,70 €ko ur-tasaren aurka zergadun batek aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa ez onartzea. Bertako Elkarteek (Goba Kultur Elkartea,…..) udal-lokalak erabiltzeko baimena ematea eta musika-ekipamendua Domaikia, Sarria eta Urkabustaizko Udalari lagatzea. Goba Kultur Elkarteari Vitoria-Gasteizko jaietan, abuztuaren 2tik 10era, udal-eszenatokia erabiltzeko baimena ematea. Lan txikiengatiko EIOZaren likidazioaren aurka aurkeztutako errekurtsoa onartzea eta aurrekontua aurkeztu ondoren zenbatekoa zuzentzea. Koadrilan eta Otxandion Enplegua Sustatzeko Planaren barruan bi pertsona kontratatzeko prozedura onartzea. 2015/16 eta 2016/17 ikasturteetarako Ordutegi Luzatuko Zerbitzuaren kontratazio-espedientea onartzea. Turismo Bulegoa hartuko duen udal-kioskoa handitu eta egokitzeko lanen Segurtasun eta Osasun Plana onartzea. Obra-baimenak ematea: Murgiako 2. poligonoko 77. lursaileko eraikinaren estalkia konpontzeko; Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarrari, ikuztegiaren inguruak egokitzeko; Sarriako

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el Decreto Nº 211 del 02.07.15 al Nº 314 del 01.09.15 referentes a: la aprobación de los padrones de las tasas por los Servicios de Horario ampliado y Escuela de música del mes de junio por importes de 1.190,34e y 2.315,80€ respectivamente, rectificación del padrón del Impuesto de Vehículos de tracción mecánica por bajas definitivas de los meses de abril a junio, de nombramiento de Tenientes de Alcalde, denegación de autorización para instalar un puesto de frutas y verduras porque no se cumple el requisito de productos propios de la zona, prórroga por un año del contrato de enseñanza de determinados instrumentos musicales con D. Isidoro Beraza, adjudicación de las obras de Ampliación y acondicionamiento del kiosko municipal para oficina de Turismo a PAVIAL NORTE S.L. por importe de 60.778,77€ IVA incluido, desestimación de recurso de reposición interpuesto por contribuyente contra la tasa de agua por importe de 2.936,70 consecuencia de una fuga existente en el tramo comprendido entre el contador y su vivienda, autorización para utilizar locales municipales a Asociaciones locales (Goba Kultur Elkartea,…..) y cesión de equipamiento municipal a las Juntas de Domaikia, Sarría, Ayuntamiento de Urkabustaiz, autorización a Goba Kultur Elkartea para utilizar el escenario municipal del 2 al 10 de agosto durante fiestas patronales de Vitoria-Gasteiz, estimación de recurso interpuesto contra liquidación de ICIO por obras menores y rectificación de la cuantía una vez presentado el presupuesto, aprobación del procedimiento para la contratación de dos personas dentro del Plan de promoción de Empleo de la Cuadrilla y Otxandio, aprobación del expediente de contratación del Servicio de Horario Ampliado para los cursos 2015/16 y 2016/17, aprobación del Plan de Seguridad y Salud de las obras de ampliación y acondicionamiento del kiosko municipal con destino a Oficina de Turismo, concesión de licencias de obras

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Administrazio Batzarrari, herriko plazarako sarbiderako eta La Peña kaleko pasabideak konpontzeko; Bitorianoko Administrazio Batzordeari, bolatokiko leihoak aldatzeko; Giliernako Batzarri hiri-hondakinen edukiontzien eremua eta herriko ikuztegi/aska multzoa egokitzeko; Lukianoko Batzarrari, hilerrian konpontze-lanak egiteko; Markinako 232/4 lursailean dagoen etxebizitzako bainugela eta sarbidea berritzeko; Bitorianoko 1181/2 lursailean dagoen eraikinaren estalkia teilaberritzeko; Ziorragako lursailean kokatutako eraikin nagusi eta erantsitako txabolaren estalkiko materiala ordezkatzeko; Murgiako 27/2 lursaileko eraikuntzan leihoak aldatzeko; Zarateko 273/8 lursailean dagoen eraikineko estalkia aldatzeko; Murgiako Bigiliano kaleko 4. Zenbakian dagoen eraikinaren iparraldeko fatxada berritzeko lanen azken ziurtapena onartzea. Murgiako 1.138/2 lursailean garajea egiteko egiten ari diren lanak bertan behera uzteko errekerimendua, baimenik ez edukitzeagatik, eta harri-lubeta osatzen duten harrien gainean utzitako lurrak eta 1.137/2 lursailarekiko mugan egindako txabola kentzeko agindua. Murgiako Nagusi hotelean egiten ari diren lanak gelditzeko errekerimendua, baimenik ez izateagatik. Ametzaga Zuiako bidean betelanaren legeztapena ukatzea, ingurumen-araudiak ezarritako baldintzak ez betetzeagatik eta Batzarraren baimena ez izateagatik. Partikularrari a-4413 errepidean ostalaritza-lokalari buruzko informazio-seinalea jartzeko baimena ematea. Koadrilari jakinaraztea Udalak Tokiko Agenda 21eko Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin jarraitu nahi duela, asteko ordu kopurua 7ra igoz. Zuzendaritza-kontratu txikiak esleitzea: udal-kioskoa handitu eta egokitzeko lanena Globaltec Arquitectos SLPU enpresari (970 € gehi BEZ) eta obra horien ikuskapena eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa Juan Ruiz-Cuevas arkitekto teknikoari (970 € gehi BEZ eta 350 € gehi BEZ, hurrenez hurren); Udaletxeko behe-solairuko eta

para arreglo de cubierta en edificio de la parcela 77 polígono 2 de Murgia, a la Junta Administrativa de Ametzaga Zuia para el acondicionamiento del entorno del lavadero, a la Junta de Sarría para el acceso a la plaza de la localidad y arreglo de pasos de la C/La Peña, a la Junta de Bitoriano para sustituir las ventanas de la bolera, a la Junta de Guillerna/Gilierna para acondicionar el espacio de los contendores de residuos urbanos y el conjunto del lavadero-bebedero de la localidad, a la Junta de Lukiano para arreglos en el cementerio, para legalizar obras realizadas en el edificio anexo a la vivienda de la parcela 232/4 de Markina, para rehabilitar baño y acceso a vivienda situada en parcela 1181/2 de Bitoriano, para retejo de la cubierta del edifico de la parcela 62/2 de Murgia, para sustituir el material de cobertura en el edificio principal y cabaña anexa situados en la parcela 673/3 de Ziorraga, para la sustitución de ventanas en la edificación de la parcela 27/2 de Murgia, para sustituir la cubierta del edificio de la parcela 273/8 de Zárate, aprobación de la certificación final de la obra de reforma de la fachada norte del edificio de la C/Biguillano 4 de Murgia, requerimiento de suspensión de obras de garaje en ejecución en la parcela 1.138/2 de Murgia por carecer de licencia y orden de retirada de la tierra depositada sobre las piedras que conforman la escollera y caseta ejecutada en el lindero con la parcela 1.137/2, requerimiento de paralización de obras en ejecución en el Hotel Nagusi de Murgia por carecer de licencia, denegación de legalización de relleno en camino de Ametzaga Zuia por no cumplir las condiciones exigidas por la normativa medioambiental y carecer de autorización de la Junta, autorización a particular para instalar en la Ctra. A-4413 señal informativa de local hostelero, notificación a la Cuadrilla del interés del Ayuntamiento para continuar con el Servicio de Asistencia Técnica de la Agenda Local 21 ampliando el horario a 7 horas semanales, adjudicación de contratos menores de dirección de la obra de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

igogailua jartzeko lanen zuzendaritza Globaltec Arquitectos SLPU enpresari (7.620 € gehi BEZ9 eta Juan Ruiz-Cuevas arkitekto teknikoari horien ikuskapena eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa (7.620 € gehi BEZ eta 1.690 € gehi BEZ, hurrenez hurren); Bigilianoko eustormaren zuzendaritza Globaltec Arquitectos SLPU enpresari (2.066 € gehi BEZ) eta Juan Ruiz-Cuevas arkitekto teknikoari horien ikuskapena eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa (2.066 € gehi BEZ eta 942 € gehi BEZ, hurrenez hurren). Udal-etxebizitzaren margotze-lana Rodolfo Larrazabali esleitzea, 1.331€tan. Batzar eta Elkarte ezberdinek musika-ekipoa egoki erabiltzeko berme gisa utzitako fidantzak kitatzea. Minusbaliotasuna duten herritarrei aparkatzeko txartelak ematea. Bitorianoko pilotalekuaren 2. faseko obren 3. ziurtapena 184.354,59 eurotan onartzea. Sarriako 38/5 lursail zaharraren exekuzio-unitateko urbanizazio lanak Udalak subsidiarioki egiteko hasiera batez aurreikusitako aurrekontuaren gehikuntza onartzea. Lan, zerbitzu, zuzkidura, diru-sarrera okerrak itzuli, langileen soldata eta diru-laguntzei dagozkien 11., 12., 13. eta 14. zk.ko ordainketa-aginduak onartzea (184.354,59 €, 22.328,73 €, 129.001,62 € eta 31.746,77 €, hurrenez hurren). Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari diru-laguntza eskatzea, 2015ean zehar jarduera fisikoa sustatzeko. Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak eta EAEANek emandako epaiaren ondorioz lan-harremana bertan behera utzi izanaren aurka liburutegiko langileak bide judizialera jo baino lehen aurkeztutako erreklamazioa ez onartzea. Energiaren Euskal Erakundeari diru-laguntza eskatzea 2015ean energia-eraginkortasuneko jarduketak burutu eta eraikin publikoetan energia berriztagarriak erabiltzeko, Udaletxeko arotzeria eta beirak aldatzeko eta sorkuntza termikoko sistemaren berritze integrala, Udaletxerako berokuntza biomasako galdara baten bitartez sortzeko. Bitorianoko 185/2 lursaila

ampliación y acondicionamiento del kiosko municipal a Globaltec Arquitectos SLPU por 970 más IVA y la inspección y la coordinación de la seguridad y salud de las citadas obras al Arquitecto técnico D. Juan Ruiz-Cuevas por 970 más IVA y 350€ más IVA respectivamente, la dirección de la obra de planta baja de la Casa Consistorial e instalación de ascensor a Globaltec Arquitectos SLPU por 7.620€ más IVA y a D. Juan Ruiz-Cuevas la inspección y la coordinación de la seguridad y salud de las mismas por 7.620€ más IVA y 1.690€ más IVA respectivamente, la dirección del muro de contención de Biguillano a Globaltec Arquitectos SLPU por 2.066€ más IVA y la inspección y la coordinación de las mismas a Juan Ruiz-Cuevas por 2.066€ más IVA y 942€ más IVA respectivamente, adjudicación del pintado de vivienda municipal a Rodolfo Larrázabal por 1.331€, cancelación de las fianzas depositadas como garantía del buen uso del equipo de música por distintas Juntas y Asociaciones, concesión de tarjetas de estacionamiento a vecin@s con discapacidad, aprobación de la 3ª Certificación de las obras de la 2ª fase del frontón de Bitoriano por importe de 184.354,59 euros, aprobación del incremento del presupuesto inicialmente estimado para finalizar las obras de urbanización de la UE de la antigua parcela 38/5 de Sarría por el Ayuntamiento mediante ejecución subsidiaria, aprobación de relaciones de mandamientos de pagos Nº 11, 12, 13 y 14 .referentes a obras, servicios, suministros, devolución de ingresos indebidos, concesión de subvenciones y retribuciones del personal del Ayuntamiento del mes de julio por importes de 184.354,59€, 22.328,73€, 129.001,62€ y 31.746,77€ respectivamente,, solicitud de subvención al Departamento de salud del gobierno Vasco para promover la actividad física durante 2015, desestimación de la reclamación previa la vía judicial laboral presentada la trabajadora de la biblioteca por la extinción de su relación laboral como consecuencia de la sentencia

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.com*

Exekuzio Unitate gisa mugatzeko behin betiko onespena eta berori kudeatzeko Hirigintza Hitzarmenaren proposamena. Alkatearen oporraldian, hots, 15.07.25etik 15.08.04ra eta 15.08.17tik 15.08.24ra, lehen alkateordea jarduneko alkate izendatzea. Udalerriko hainbat herritarri banaka zein Zuiako Gau Eskolaren bitartez 2014/15 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntzak ematea. AEK Zuiako Gau Eskola Euskaltegiari 1.400 €ko diru-laguntza ematea, hau da, 2014/15 ikasturteko defizitaren %50. Udalerriko herritarrei 2014/15 ikasturtean eskola-garraioko gastuetarako diru-laguntzak ematea: 62 € bakoitzari. Eugenio Murguia beka Beatriz Gallego Muñoz andreari ematea. Diru-laguntzak ematea: Oroko Andre Mariaren Kofradiari 927 €, Txirrindularitzako X. Errelebo Martxarako kamisetak erosteko; Oroko Andre Maria Ikastetxeko IGEri 15.146 €, 2014/15 ikasturteko eskolaz kanpoko jarduеretarako; Murgia BHIko IGEri, 3.000 €; Zuia Mendi Taldeari 1.620 €, 2015eko ekintzetarako; La Blanca Atletismo Klubari 450 €, 15.03.29an izango den XI. Zuiako Herri Lasterketarako; Bitorianoko Batzarrari 1.137,50€, herriko jaietarako; Lukianoko Batzarrari 2.800 €, herriko jaietarako; Sarriako Batzarrari 2.367 €, herriko jaietarako; Zarateko Batzarrari 500 €, herriko jaietarako; Bitorianoko Batzarrari 925,52 €, herriko bolatokiko leihoak aldatzeko; Giliernako Batzarrari 7.309 €, ikuztegi-aska egokitzeko; Ametzaga Zuiako Batzarrari 1.673,06 €, herriko argien koadro elektrikoa prest jartzeko; Sarriako Batzarrari 912,48 €, herriko argien koadro elektrikoa prest jartzeko; Ametzaga Zuiako Batzarrari 674,35 €, Errepide Nagusiaren eta Arieta kalearen artean argiteria publikoko farola bat jartzeko; Jugoko Batzarrari 479,55 €, hilerriko hobien estalkia iragazgaizteko; Sarriako Batzarrari 99 €, eliz parrokiko instalazio elektrikoa hobetzeko; Ametzaga Zuiako Batzarrari 635,25 €, elurra kentzeko lanetarako; Giliernako Batzarrari 423,50 €,

del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 2 de de Vitoria-Gasteiz y TSJPV, solicitud de subvención al Ente Vasco de la Energía para actuaciones de eficiencia energética y uso de energías renovables en edificios públicos año 2015 para la sustitución de la carpintería y vidrios del edificio de la Casa Consistorial y reforma integral del sistema de generación térmica con caldera de biomasa para la calefacción del Ayuntamiento, aprobación definitiva de la delimitación como Unidad de Ejecución de la parcela 185/2 de Bitoriano y propuesta del Convenio Urbanístico de gestión de la misma, nombramiento del 1ª Teniente de Alcalde como Alcalde en funciones durante las vacaciones del Alcalde del 25.07.15 al 04.08.15 y del 17.08.15 al 24.08.15, concesión de subvenciones individuales y a través de la Gau Eskola de Zuia a divers@s vecin@s del municipio para el estudio del euskera curso 2014/15, concesión a AEK Zuiako Gau Eskola Euskaltegia de una subvención de 1.400€ equivalente al 50% del déficit del curso 2014/15, concesión de subvenciones a vecin@s del municipio para los gastos del transporte escolar del curso 2014/15 por importe individual de 62€, adjudicación de la Beca Eugenio Murguia a Dª Beatriz Gallego Muñoz, concesión de subvenciones a la Cofradía Nuestra Señora de Oro de 927€ para el suministro de camisetas para la X Marcha Ciclista por Relevos, 15.146€ a la AMPA del Colegio Virgen de Oro para las actividades extraescolares del curso 2014/15, 3.000€ a la AMPA del IES de Murgia, al Zuia Mendi Taldea 1.620para las actividades de 2015, al Club Atletismo La blanca 450€ para la XI Carrera Popular de Zuia del 29.03.15, a la Junta de Bitoriano para las fiestas patronales 1.137,50€, a la Junta de Lukiano para fiestas 2.800€, Junta de Sarría para fiestas 2.367€, Junta de Zárate para fiestas 500€, Junta de Bitoriano 925,52€ para la sustitución de las ventanas de la bolera de la localidad, a la Junta de Guillerna/Gilierna 7.309€ para el acondicionamiento del lavadero-bebedero, a

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

elurra kentzeko lanetarako; Sarriako Batzarrari 444,67 €, elurra kentzeko lanetarako; Aperregiko Batzarrari 4.836,21 €, haur parkearen ingurua egokitzeko lanetarako. Diru-laguntzak ukatzea: Lukianoko Batzarrari, hilerriko sarrerako atea desmuntatu eta jartzekoa, 2014an egindako obra delako; Giliernako Batzarrari hondakinen edukiontziak egokitzeko eskulanerakoa, lan horiek AFAren %100eko diru-laguntza jaso dutelako; Aperregiko Batzarrari ikuztegiko estalkia konpontzekoa, lan horiek AFAren %100eko diru-laguntza jaso dutelako. PAVIAL NORTE SL enpresari, Bea-Murgia etxea indartzeko lanetarako berme gisa utzitako 1.025,34 €ko fidantza itzultzea. Zuiako 38/4 lursailean txakur-zentroa eta albaitari-klinika jartzeko jarduera-lizentziaren aldeko txostena egitea eta espedientea EJko Ingurumen Sailari bidaltzea, sailka dezan. Urkabustaizko Udalari azokarako udal-materiala lagatzea. Vitoria-Gasteiz noranzkoko zerbitzugunean AD-BLUE biltegi bat jartzeko Campsa Estaciones de Servicio SAk sustatutako eskaeraren aldeko txostena egitea eta espedientea EJko Ingurumen Sailari bidaltzea, sailka dezan. Xenda Gestión Integral de Servicios SL enpresari Gaztelekuan eta Haur Zerbitzuan aisialdiko jarduera burutzeko esleitutako kontratua urtebetez luzatzea. Bea-Murgia Etxetik kendutako erretena erabili ezinezko gauza izendatzea eta berori Zorroza Gestión SLri 4.500€/Tn-ko prezioan besterentzea. Elena Bergara behin-behineko idazkari izendatzea, titularra 15.08.17tik 15.08.31ra oporretan dagoen bitartean. Udaleko LPZ egiteko zerbitzua kontratatzeko baldintza administratibo eta teknikoen plegua onartzea.

la Junta de Ametzaga Zuia 1.673,06e para la puesta a punto del cuadro eléctrico del alumbrado público, a la Junta de Sarría 912,48e para la puesta a punto del cuadro del alumbrado público, a la Junta de Ametzaga Zuia 674,35€ para instalar una farola de alumbrado público entre la Ctra. General y la C/Arieta, a la Junta de Jugo 479,55e para impermeabilizar la cubierta de los nichos del cementerio, a la Junta de Sarría 99€ para la mejora de la instalación eléctrica de la iglesia parroquial, a la Junta de Ametzaga Zuia 635,25€ para los trabajos de retirada de nieve, a la Junta de Guillerna/Gilierna 423,50€ para la retirada de la nieve, a la Junta de Sarría 444,67€ para la retirada de nieve, a la Junta de Aperregi 4.836,21€ para obras de adecuación de zona para parque infantil, denegación de la subvenciones solicitadas por la Junta de Lukiano para el desmontaje y colocación de la puerta de acceso de acceso al cementerio porque es una obra realizada en 2014, a la Junta de Guillerna/Gilierna para la mano de obra destinada al acondicionamiento de los contenedores de residuos porque dichos trabajos han sido subvencionados al 100% por la DFA y a la Junta de Aperregi para el arreglo de la cubierta del lavadero porque dichos trabajos han sido subvencionados por la DFA al 100%, devolución de la fianza depositada por PAVIAL NORTE S.LL. por importe de 1.025,34€ como garantía de las obras de refuerzo de la Casa Bea-Murgia, emisión favorable a la licencia de actividad para la instalación de un centro canino y clínica veterinaria en la parcela 38/4 de Zuia y remisión del expediente a Medio Ambiente del G.V. para su calificación, cesión al Ayuntamiento de Urkabustaiz de material municipal para la feria, emisión de informe favorable a la instalación de depósito AD-BLUE en la Estación de servicio Altube dirección Vitoria-Gasteiz promovida por Campsa Estaciones de Servicio S.A. y remisión del expediente a Medio Ambiente de G.V. para su calificación, prórroga de un año del contrato adjudicado a Xenda Gestión

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Udalbatzak ebazpen guztien berri izan eta aurkeztuta diru-laguntza eskaerak berretsi ditu.

**3.- POSTA OFIZIALA.**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Derrigorrezko Diru-bilketa zerbitzuak kaudimen-gabeziagatik huts egindakoen deklarazioa bidali du.
- Ingurumen eta Hirigintza Sailak, Eguraldi txarrarengatik botatako Berretingo aparteko aprobetxamenduaren onespena bidali du.
- Toki Administrazio eta Lurralde Oreka Sailak honako hauek jakinarazi ditu: 2015eko bigarren hiruhileko itzartu gabeko zergen partaidetza (581,31€), Diputatuen Kontseiluaren Estatuko 2014ko laguntzen partaidetzari (1.372,12€) buruzko akordioak, eta 2015eko hirugarren hiruhilekoko TEFFF (261.450,40€) eta 2015eko aparteko ekarpenak (18.320,53€) ordaindu dituela.
- Herrilan eta Garraio Sailak hiri arteko garraio-emakida berriaren ordutegi eta ibilbide berriak bidali ditu.
- Gizarte Zerbitzuek, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzera zuzendutako programak eta jarduera garatzeko eskatutako diru-laguntza ukatu duela jakinarazi du.
- Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak Eguneko Arretako Landa

Integral de Servicios S.L. para el tiempo libre en el club Joven y Servicio infantil, declaración como efecto no utilizable del canalón retirado de la Casa Bea-Murgia y enajenación del mismo a Zorroza Gestión S.L. por 4.500€/Tn., nombramiento de Dª Elena Bergara como Secretaria accidental durante las vacaciones de la titular del 17.08.15 al 31.08.15, aprobación del pliego de cláusulas administrativas y técnicas para contratar el servicio de elaboración de la RPT del Ayuntamiento.

La Corporación se da por enterada y ratifica las solicitudes de subvenciones presentadas.

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Álava:**

- Recaudación Ejecutiva remite declaración de fallidos por insolvencia.

- Medio Ambiente y Urbanismo: remite aprobación del aprovechamiento extraordinario de Berretín derribado por inclemencias temporales
- Administración Local y Equilibrio Territorial comunica la participación en tributos no concertados 2 trimestre/15 (581,31€), acuerdos del Consejo de Diputados sobre participación de de las ayudas del estado/2014 (1.372,12€), abono del FFOFEL/3 trimestre/15 (261.450,40€) y aportaciones extraordinarias 2015 (18.320,53€).

- Obras Públicas y Transportes remite nuevos horarios e itinerarios de la nueva concesión del transporte interurbano
- Servicios Sociales comunica la denegación de subvención para el desarrollo del programa y/o actividades dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres.

- Instituto Foral de Bienestar Social remite convenio de colaboración para la

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Zentroa kudeatu eta mantentzeko lankidetza-hitzarmena bidali du.

- Nekazaritza Sailak honako hauek jakinarazi ditu: Zuiako XXIII. Abere Azokarako kartel eta liburuxkak argitaratu direla, 1.604,38 €ko diru-laguntza eman duela, hori justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta burutzeko baimena.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak derrigorrezko diru-bilketaren ekaineko eta uztaileko ordainketak jakinarazi ditu, eta 2014ko BEZ itzultzeko izapidetu beharreko frogagiriak eskatu ditu.

- Euskara, Kultura eta Kirol Sailak jakinarazi du 2015ean euskararen erabilera normaltzeko eta sentikortzeko jardueretarako 5.045,02 euroko diru-laguntza eman duela.

- Toki Zergen Zerbitzuak 2015eko EJZren matrikula bidali du.

- Parke Naturalen zerbitzuak Gorbeiako Parke Naturaleko arabar isurialdean Marrualdia arautzen duen Foru Araua bidali du.

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak honako hauek jakinarazi ditu: informazio geografikoa hobetu eta udal-mapak egiteko laguntzen deialdia, eta garapen iraunkorra sustatuko duten ekintzen berri emateko informazio-jardunaldiaren deialdia.

- Segurtasun Sailak larrialdiak artatzeko galdetegia betetzeko eskatu du eta parketxearen irteerako txabolan pintada bat dagoela jakinarazi du.

- Enplegu eta Gizarte Politika Sailak 2016ko egutegiko jaiegunak bidali ditu.

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Oroko Andre Maria Ikastetxea eraberritzeko Proiektua bidali du.

- Osasun Sailak, gripearen aurkako txertaketa-kanpainaren berri eman eta populazioaren datu estatistikoak eskatu ditu.

gestión y mantenimiento del Centro Rural de Atención Diurna.

- Agricultura comunica la edición de carteles y folletos para la XXIII Feria de Ganado de Zuia, la concesión de una subvención de 1.604,38€, la documentación necesaria para justificar la misma y autorización para su celebración.

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica pagos de recaudación ejecutiva de los meses de junio y julio, requiere documentación justificativa tramitar la devolución correspondiente al IVA/2014.

- Euskera, Cultura y Deportes comunica la concesión de una subvención de 5.045,02 euros para las actividades de normalización del uso y sensibilización del euskera 2015.

- Servicio de Tribunos Locales remite matrícula IAE/2015.

- Parques Naturales remite Orden Foral que regula la Berrea en la vertiente alavesa del Parque Natural del Gorbeia.

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Medio Ambiente y Política Territorial informa de la convocatoria de ayudas para la mejora de la información geográfica y realización de mapas municipales, convocatoria de jornada informativa para informar de ayudas sobre acciones que promuevan el desarrollo sostenible.

- Seguridad solicita cumplimentación de cuestionario para la recepción de emergencias y comunica la existencia de una pintada en una caseta a la salida del parketxea.

- Empleo y Políticas Sociales remite relación de días festivos del calendario año 2016

- Educación, Política Lingüística y Cultura remite Proyecto de reforma del Colegio Virgen de Oro

- Salud informa sobre la campaña de vacunación antigripal y solicita datos estadísticos de población.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

- Herri Administrazio eta Justizia Sailak Osoko Bilkuren aktak bidaltzeko izapidetze-sistema elektronikoaren berri eman du.

- Nekazaritza eta Abeltzaintza Sailak arriskutsuak izan daitezkeen zakurren izen-emateari buruzko informazio argigarria bidali du.

- Osasun Sailak, igerilekuetako ur-laginaren analisi-txostena eta kalifikazioa eta udal-igerilekuaren auto-kontrola ezartzeari buruzko gainbegiratze-txostena bidali ditu.

**3.3.- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea:**

- 15.09.16ko ezohiko Batzarraren deialdia bidali du.

**3.4.- Epaitegiak:**

- Zuiako Bake Epaitegiak Alkatetzak ospatu beharreko ezkontza zibilen espedienteak bidali ditu.

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak irmoa den Ebazpenaren lekukotasuna bidali du, zeinaren bitartez amaitutzat ematen baita Langileen ordainsariak aldatzeko Udalbatzak hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa, Estatuko Abokatuak atzera egin izanagatik.

**3.5.- Gobernuaren Ordezkariordetza Araban:**

- Autonomia eta Toki mailako Koordinazio Idazkaritza Nagusiak Udala faktura elektronikoak sartzeari buruzko puntu orokorrari atxikitzearen inguruko idazkia bidali du.

**4.- UDALAREN BERDINTASUN PLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Zubizarreta Consulting SL enpresak egindako Emakumeen eta Gizonen

- Administración Pública y Justicia comunica el sistema de tramitación electrónica para la remisión de las actas plenarias.

- Agricultura y Ganadería remiten información aclaratoria sobre la inscripción de perros potencialmente peligrosos.

- Salud remite informe analítico y calificación de las muestras de agua de la piscina e informe de supervisión sobre la implantación del autocontrol en las piscinas municipales

**3.3.- Asociación de Municipios Vascos/EUDEL:**

- Remite convocatoria Asamblea extraordinaria el 16.09.15

**3.4.- Juzgados:**

- Juzgado de Paz de Zuia remite expedientes de matrimonio civiles para su celebración por la Alcaldía.

- Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 2 de Vitoria-Gasteiz remite testimonio de de la Resolución que es firme, por la que se declara finalizado el recurso interpuesto contra el acuerdo del Ayuntamiento Pleno de modificación de las retribuciones de los Operarios al desistir el Abogado del Estado del mismo.

**3.5.- Subdelegación del Gobierno en Álava:**

- Remite escrito de la Secretaría general de coordinación Autonómica y Local en relación con la adhesión de este Ayuntamiento al punto general de entrada de facturas electrónicas.

**4.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN DE IGUALDAD MUNICIPAL.**

El Acalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, propone aprobar el Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres del municipio de Zuia,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con*

Berdintasunaren aldeko Zuiako Plana onartzea proposatu du, Emakundek txostena egin ondoren.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Zuiako 1. Plana onartzea.

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**5.- BAIA IBAIKO UR APROBETXAMENDUAREN EZAUGARRIEN ALDAKETA ONARTZEA (MARKINA I ETA MARKINA II PUTZUAK BARNE HARTZEA)**

Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Ebroko Ur Konfederazioak bidalitako idazkiaren berri eman du. Horretan jakinarazten dio Udalari zeintzuk diren Markinako bi putzuak erakunde horretan inskribatzeko bete beharreko betekizunak eta dagoen emakidaren ezaugarriak aldatzeko, eta tartean, Markina I eta Markina II putzu horiek barne hartzeko, erabaki bat hartzea proposatu du.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Ebroko Ur Konfederazioari Baia ibaiko Zuiako Udalaren aprobetxamenduaren (aipatu erakundeko Ur Erregistroan inskribatutakoa: A Sekzioa, 68. Liburukia, 196. orria) emakida aldatzeko eta aprobetxamendu horretan Markina I eta

elaborado por Zubizarreta Consulting S.L., una vez que ha sido informado por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar el 1º Plan Local de Igualdad de Mujeres y Hombres de Zuia.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**5.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LAS CARACTERÍSTICAS DEL APROVECHAMIENTO DE AGUA DEL RIO BAYAS (INCLUSIÓN POZOS MARKINA I Y MARKINA II).**

El Sr. Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, da cuenta del escrito remitido por la Confederación Hidrográfica del Ebro que informa al Ayuntamiento los requisitos para la inscripción de los dos pozos de Markina en dicho organismo y propone la adopción de un acuerdo por el que se solicite la modificación de las características de la concesión existente con la inclusión de los citados pozos Markina I y Markina II en la misma.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Solicitar a la Confederación Hidrográfica del Ebro la modificación de la concesión del aprovechamiento de aguas del río Bayas de la cual es titular el Ayuntamiento de Zuia (inscrito en la Sección A, Tomo 68, Hoja 196 del Registro de Aguas del citado Organismo)

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Markina II putzuen lurpeko uren emari berriak jasotzeko eskatzea, erakunde horrek eskatutako dokumentazioaren arabera.

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**6.- TXOSTENAK.**

Alkate jaunak honako gai hauen berri eman du:

- Gazte Klub eta Ludotekaren zerbitzuaren enpresa esleipendunak, XENDA SLk, enpresa beste bati saltzeko asmoa dutela eta bereak dituen kontratuetan subrogatuko dela jakinarazi du.

- Iberdrolak Bigilianon, eustorma egingo den tokian, dagoen zutoina kentzeko baimena eskatu du.

- Fernández de Trocóniz aholkulari juridikoarekin egon da eta esan dio begira dezala Udalak Ikastetxea (lehen eta bigarren hezkuntza) baino ez duen hartuko higiezin bat erostekotan aplikagarria den erregimen juridikoa, Udalari lehen hezkuntzako ikastetxeen mantentze-betebeharrak baino ez dagozkiola kontuan izanda.

Otsoa Eribeko zinegotzi jaunak honako hauen berri eman du:

- 2015eko Eugenio Murgia Bekaren esleipenduna den Beatriz Gallego Muñoz andrearekin izandako bilerari buruz, behin

e incluir en el mismo los nuevos caudales de aguas subterráneas de los pozos Markina I y Markina II conforme a la documentación requerida por dicho Organismo.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya, para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**6.- INFORMES.**

El Alcalde informa los siguientes temas:

- La empresa adjudicataria del servicio de Club Joven y Ludoteca XENDA S.L. ha comunicado su intención de vender la empresa a otra que se subrogará en los contratos de los cuales es adjudicataria.

- En principio se prevé incluir para el próximo Pleno el expediente de contratación del servicio de gestión de las instalaciones deportivas e impartición de cursos con la aprobación de los Pliegos de cláusulas administrativas y técnicas.

- Iberdrola ha solicitado la licencia para retirar el poste existente en Biguillano, junto a la zona prevista para la ejecución del muro de contención.

- Ha estado con el Asesor Jurídico Sr. Fernández de Trocóniz y le ha dicho que mire el régimen jurídico aplicable en el supuesto de adquisición por el Ayuntamiento de un inmueble con destino a Centro Educativo integral (primaria y secundaria) teniendo en cuenta que al Ayuntamiento solo le corresponden las obligaciones de mantenimiento en los centros de primaria.

El Concejal Sr. Otsoa Eribeko informa:

- Sobre la reunión mantenida con la adjudicataria de la Beca Eugenio Murguía/2015 Dª Beatriz Gallego Muñoz

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

eta berriz esan baitu lan egiteko testigantza zuzenak, ahozkoak izatea komeni dela, eta horregatik, epea 1945. urtera arte luzatzea eskatu du.

- Gaur amaitu da Udalaren LPZren balorazio-proposamena aurkezteko epea, zeinaren bitartez bi helburu lortu nahi diren: langileen egoerari buruzko erreferentzia egokia izatea, beharrezkoak izan litezkeen aldaketak eta, bestetik, Udalaren plantilla egokia zein izango zen jakitea.

quien insiste en la conveniencia de contar con testimonios directos, orales para la elaboración del trabajo, solicitando la ampliación del plazo hasta el año 1945.

- Hoy ha finalizado el plazo para presentar la propuesta de valoración de la RPT del Ayuntamiento, con la que se pretenden conseguir dos objetivos: tener una referencia acertada de cómo están l@s trabajador@s, posibles cambios que fueran necesarios y por otra parte ver cuál sería la plantilla adecuada del Ayuntamiento

**7.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDETZEKO ETA PREMIAZKO GAIAK.**

**7.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES**.

Udalbatzak aho batez, eta premiazkotzat jo ondoren, Gai Zerrendan aurreikusi gabeko ondorengo aztergaia gehitzea erabaki du:

La Corporación por unanimidad y previa declaración de urgencia acuerda incluir el presente punto no previsto en el Orden del Día:

**7.1.- Errefuxiatuei buruzko deklarazio instituzionala**

**7.1.- Declaración institucional sobre los Refugiados.**

Alkateak, Informazio Batzordeak azaldutakoa errepikatuz, EH-BILDU taldeak errefuxiatuen egoerari buruz aurkeztutako deklarazioaren berri eman du; EAJ/PNV eta PP taldeak deklarazio alternatiboa aurkeztu dute, funtsean lehenengo horrekin bat datorrena, eta azkenik deklarazioa adostu dute taldeek, ondoren zehazten denaren arabera.

El Alcalde reiterando lo manifestado en la Comisión informativa da cuenta de la declaración que el Grupo EH-BILDU presenta sobre la situación de los refugiados; los Grupos EAJ/PNV y PP presentan una declaración alternativa a la misma, que básicamente coincide, y finalmente todos los grupos consensuan la declaración, conforme a continuación se detalla.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad:

*“LEHENENGOA.- Europar Batasunari galdegiten dio asilo eta migrazioari buruzko politiken bateratzeko printzipioa bete dezan eta gai horrekiko agenda europarra osa dezan, besteak beste, bertan zehaztuz asilorako europar sistema bateratua, asilo-eskatzaileak Europara iristeko modu segurua eskainiko luketen giza bisatuak, gatazkan ari diren herrialdeetatik gertuko eremuetan harrera-*

*“PRIMERO.- Insta a la Unión Europea para cumplimentar el principio de comunitarización de las políticas de asilo e inmigración, constituyendo una agenda europea que, entre otras cuestiones, integre un sistema europeo común de asilo, los visados humanitarios que permitan un acceso seguro de los demandantes de asilo a Europa, la apertura de centros de recepción en las áreas limítrofes a los Países en*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

*guenak irekitzea, europar asilorako eskabideak bertan tramitatzeko, errefuxiatuen kupoak europar herri ezberdinen artean banatzeko irizpide eta sistemak definitzea eta finantza baliabideen gehitzea, Asiloa Babesteko Europar Agentziari (EASO) eskainitakoa keta mediterraneoko herrialdeei, bereziki Grezia eta Italia; eta migranteak babestu eta erreskatatzeko Frontex sistemaren eragileei (Triton eta Poseidon).*

*BIGARRENA.- Espainiako gobernuari galdegiten dio Europar Batasunaren aurrean, heldu den irailaren 14ko bileran -estatuetako agintari gorenak batu beharko litezkeen bilera migrazio eta asiloari buruzko politika bateratu europarra abian jartzea defenda dezan eta, aldi berean, batasunak erabakitako errefuxiatuen nahitaezko kuota onartzeko konpromisoa bere egin.*

*HIRUGARRENA.- Euskal Gobernuari galdegiten dio, bere eskumenak baliatuz eta foru-diputazioekin eta EUDEL-ekin koordinaturik eta Europar Batasunak emandako irizpideekin bat eginik, errefuxiatuak Euskal Autonomia Erkidegoan onartzeko jardute-plana osa dezan eta larrialdiko laguntza ekonomikoak bidera ditzala, muturreko larrialdi-egoerak arintzeko helburuaz.*

*LAUGARRENA.- Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, bai eta konpromiso bera duten beste udal batzuekin bat eginda lan egitekoa ere.*

*BOSGARRENA.- Siriako eta beste herrialde batzuetako gatazka politiko eta militarrak bertatik irten ezin eta, ondorio krudelenak bertatik bertara pairatzen dituzten pertsonak laguntzeko prestutasuna adierazten du. Xede honetarako, agerian utzi nahi du gatazkapean diren eremuetako errefuxiatu-guneetan lan egiten duten erakunde eta elkarteen lankide jarduteko.*

*conflicto para operar con las solicitudes de asilo europeo, la definición de los criterios y del sistema de distribución de las cuotas de refugiados entre los distintos países europeos asi como el aumento de los recursos financieros hacia la Agencia Europea de Protección al Asilo (EASO), los países mediterráneos, fundamentalmente Grecia e Italia- y las operaciones del sistema Frontex de salvaguardia y rescate de emigrantes (Triton y Poseidon).*

*SEGUNDO.- Insta al Gobierno de España para que defienda ante la Unión Europea en la próxima cumbre del 14 de septiembre - cumbre que debiera ser de las máximas autoridades de los Estados- la puesta en marcha de una política común europea en materia de inmigración y asilo y, al tiempo, se comprometa a aceptar la cuota obligatoria de acogida de refugiados decidida por la Unión.*

*TERCERO.- Insta al Gobierno Vasco en orden a que, en el ejercicio de sus competencias y en coordinación con las Diputaciones Forales y EUDEL, elabore, acorde con las directrices de la Unión Europea, un plan de actuación que permita acoger en Euskadi a los refugiados y habilite ayudas económicas de emergencia para paliar las situaciones de extrema gravedad.*

*CUARTO.- Declara su disposición a acoger a refugiados que huyen de conflictos políticos y militares como está ocurriendo ahora en Siria y los países cercanos, y muestra su disposición a trabajar conjuntamente con aquellos ayuntamientos que adquieran el mismo compromiso.*

*QUINTO.- Del mismo modo, declara su disposición a prestar ayuda a las personas que, sin poder huir de dichos conflictos políticos y militares, están padeciendo directamente las consecuencias más crudas de los mismos. Para ello, muestra su disposición a colaborar con organismos u organizaciones que trabajen en los campos de refugiados de las zonas en conflicto.*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

*SEIGARRENA.- Arestian aipatutako erakunde horiekin eta Euskal Herriko beste udal batzuekin lan egiteko konpromisoa hartzen du Zuiako udalbatzak, errefuxiatu hauek hartzeko tokiko sare bat egituratzeko.*

*ZAZPIGARRENA.- Zuiako udalbatzak konpromisoa hartzen du adierazpen instituzional hau hiritar guztienganaino eramateko, auzokideei eskatuz, aurreko beste hainbatetan bezala, agerian utz ditzatela beren konpromiso eta solidaritatea tragedia honek ukitutako pertsona guztiekiko".*

*SEXTO.- El Pleno del Ayuntamiento de Zuia se compromete a trabajar en colaboración con estas instituciones así como a colaborar con otros ayuntamientos vascos con el objeto de articular una red local de acogida a estos refugiados.*

*SÉPTIMO.- El Pleno del Ayuntamiento de Zuia se compromete a hacer llegar a la ciudadanía esta declaración institucional, solicitando de los vecinos y vecinas, que como en situaciones similares anteriores, hagan efectiva su compromiso y solidaridad para con las personas afectadas por esta tragedia"*

**8.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Sautu zinegotzi jaunak gogorarazi du irisgarritasun-arloko eskaerak aurkezteko epea hil honetan amaitzen dela eta alderdi hori hobetzen jarraitzeko jarduketa-programa egitea proposatu du, lehenengo jarduketa honetan arazorik garrantzitsuenak konponduz.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:50ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

**8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Concejal Sr. Sautu recuerda la presentación de solicitudes en materia de accesibilidad que finalizará este mes y propone realizar un programa de actuaciones para seguir mejorando en este aspecto, solucionando en esta primera actuación los problemas más importantes.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la reunión, siendo las 19:50 horas de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria, / La Secretario,

**AYUNTAMIENTO DE ZUIA**
*MURGIA (ALAVA)*

**ZUIAKO UDALA**
*MURGIA (ARABA)*

***Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366***
***✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.con***